

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri eta landa ondasun higiezin gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2026ko ekonomia ekitaldiko errolda eta ordaintzeko epea jende orori jakinaraztea

Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko foru-arauaren 21.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurrean jartzen dira landa ondasun higiezin gaineko zergaren errolda, jabetzako zedulen zerrenda eta finken zerrenda, poligonoka, bai eta hiri ondasun higiezin gaineko zergaren titularren errolda alfabetikoa ere, denak 2026koak, eta denak alkatearen 2026ko ekainaren 15eko ebazpen bidez onetsiak.

Aipatutako erroldak jendaurrean jarriko dira udaletxeko idazkaritzan hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko, eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko. Erreklamaziorik ez bada, behin betiko onetsizat joko dira.

Errolda eta hari erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio hura ebazteko eskumena duen organoari, hilabeteko epean, jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

KOB RATZE ALDIA

Borondatezko epeko dirubilketa epea bi hilabetekoa izango da, 2026ko irailaren 15etik 2026ko azaroaren 15era. Borondatezko epeko dirubilketa epea amaitu ondoren, epe exekutiboa hasiko da zuzenean, ordaindu ez diren kuotetarako. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekareruak eskatzea, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu bidearen kostuak ere, hala badagokio. Banketxeetan helbideratutako ordainketetarako, zergapekoek ez dute inolako izapiderik egin beharko, bankuak 2026ko irailaren 15ean egingo baitu zordunketa.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, ordainagiria udal bulegoetan emango zaie zergapekoei, jendearen harrerako ordutegian, Udalak Kutxabanken duen kontuan dirua sar edo banku transferentzia egin dezaten. Zergadunei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Lantziegoko Udalean izapidetu beharko dira.

Epea bukatutakoan, premiamendu bidea hasiko da, eta ordaindu ez diren kuotak kobratuko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak ezarritako errekareruarekin.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Lantziego, 2026ko ekainaren 15a

Alkatea

ITZIAR DE ÁLAVA MARTINEZ DE ICAYA